



JARDUEREN MEMORIA  
CRISTINA ENEA FUNDAZIOA  
2019



## AURKIBIDEA

<b>1.- CRISTINA ENEAKO INGURUMEN BALIABIDEEN ETXEA.....</b>	<b>1</b>
1.1.- Erakusketak .....	1
1.2.- Hitzaldiak .....	5
1.3.- Tailerrak eta ikastaroak .....	8
1.4.- Eskola-heziketa .....	15
1.5.- Ziklo eta proiektzioak .....	18
1.6.- Irteerak .....	20
1.7.- Proiektuak eta kanpainak.....	23
1.7.1.- Proiektuak .....	23
1.7.2.- Kanpainak.....	26
1.8.- Besteak .....	27
<b>2.- ULIA INTERPRETAZIO ZENTROA.....</b>	<b>31</b>
2.1.- Erakusketak .....	31
2.2.- Ikastaro eta tailerrak.....	33
2.3.- Irteerak .....	36
2.4.- Eskola Heziketa.....	38
<b>URGULLEKO NATUR TXOKOA .....</b>	<b>37</b>
3.1.- Udaberria.....	37
3.2.- Uda .....	38
<b>4.- IRAUNKORTASUNAREN BEHATOKIA.....</b>	<b>39</b>
4.1.- Agora K2050 hitzaldi-sorta .....	39
4.2.- Txostenak.....	41
4.3.- Besteak .....	42
<b>5.- BIZIKLETAREN BEHATOKIA.....</b>	<b>43</b>
5.1.- Jarduerak .....	43
5.2.- Besteak .....	44
<b>6.- ANEXO.- RESUMEN EJECUTIVO .....</b>	<b>45-48</b>

**CRISTINA ENEAKO  
INGURUMEN  
BALIABIDEEN  
ETXEA**





## 1.- CRISTINA ENEAKO INGURUMEN BALIABIDEEN ETXEA

Kontrakoa adierazten ez bada, jarduera guztiak Donostiako Ingurumen Baliabideen Etxean ospatu dira. Jarduera guztiak propioak dira eta ez merkataritzakoak, eta Funadazioko helburuak betetzeko diseinatuta daude. Partehartzaile guztiak pertsona fisikoak izan dira.

### 1.1.- ERAKUSKETAK

#### Bi argiren artean (Entre dos luces)

**Data:** Urriak 5 – urtarrilak 13

**Edukiak:** Juan Varela Simóren naturaletik edo estudioan egindako hegaztien gaineko olio eta akuareletako lagin bat da. Apunteek kanpoaldean ikusitakoaren espiritua, argi uniformeko lantegian, birsortzea baimentzen duten ideia eta esperientziak jasotzen duten modua erakusten du.

**Bisitariak:** 29 (15 emakumezkoak; 14 gizonezkoak)

**Sektorea:** Publiko orokorra

#### Nature Change

**Data:** Azaroak 22 – otsailak 22

**Edukiak:** Euskal Herrira etorri zenetik egindako lanak erakutsiko dituen Kimia Kamvari artista iraniarraren erakusketa berria. Artea eta natura, materia eta berehalako esperientzia eta denbora ziklikoaren eta ekologiaren arteko erlazioei buruzko gogoeta.

**Bisitariak:** 243 (150 emakumezkoak; 193 gizonezkoak)

**Sektorea:** Publiko orokorra

#### Uliategia

**Data:** Abenduak 20 – urtarrilak 27

**Edukiak:** Usandizaga Institutoko Publizitate Grafikako 2. mailako ikasleek bederatzigarren urtez Cristina Enea Fundazioko Jasangarritasunaren Egutegia diseinatu dute. Aurtengo gaia Ulia mendia da. Uliategiko proposamen grafikoen bidez, bertoko bizilagunik adierazgarrienak eta haitzen ezaugarriak ezagutu ahal izango ditugu, eta denboran atzera egingo dugu Donostiako leku harrigarri honi eman zaizkion erabilerak ezagutzeko.

**Bisitariak:** 76 (45 emakumezkoak; 131 gizonezkoak)

**Sektorea:** Publiko orokorra

#### Klima-aldaketa, hau komeria. Erakusketa bat, bi esposizio

**Data:** Otsailak 7 – maiatzak 5

**Edukiak:** Nola ikusten du berotze globalak eragindako tenperaturen igoera Doaa Eladl biñetista egiptoarrak? Nola irudikatzen du Kap umorista grafikoak lehortearen arazoa txiste grafiko batean? Eta euskal marrazkilariek? Nola irudikatzen dute gaur egungo arazo larri hau? Umore grafikoko erakusketa bikoitz honetan, Euskal Herriko eta mundu guztiko biñetistek osasunerako, ingurumenerako, nekazaritzarako, ekonomiarako... arazo larri honen ikuspegi partikularra irudikatzen dituzte.

**Bisitariak:** 1.984 (1.020 emakumezkoak; 964 gizonezkoak)

**Sektorea:** Publiko orokorra

### [Klima]-aldaketa aldatuz. Klima DSS2050 Ekintza-Plana

**Data:** Martxoak 1 – martxoak 10

**Edukiak:** Planeta jasaten ari den Klima-Aldaketa giza-ekintzaren ondorioa da, erregai fosilak erretzeagatik, hain zuzen. Beraz, aldaketa honen aurkako ekintzak burutzea gure erantzukizuna da, agertoki klimatiko berrietan bizitzeko gure bizimodua egokitzen dugun bitartean. Donostiako Klima 2050 Ekintza Plana da hiriak klima aldaketaren erronkari ematen dion erantzuna. Hartutako konpromiso klimatikoak betetzeko beharrezkoa den gizarte eraldaketa handia lortu nahi du politika publiko guztiak antolatuko dituen plan honek.

**Bisitariak:** 43 (20 emakumezkoak; 23 gizonezkoak)

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Pictio. Pintutaren konpainian

**Data:** Martxoak 14 – ekainak 2

**Edukiak:** Porfolio Naturaleko kideen lanen aukeraketa sakon batetik sortzen da PICTIO. Erakusketa hauek natura-argazkigintzan begiratzeko modu bat aurkezten du zeinean argazkilariak, zazpi korrante piktoriko eta hauek bereizten dituen ikuste-estetikak eraginda eta erakarrita, eragin hauek nabari dituen estiloa prozesu fotografiko honen emaitzan erakusten du.

**Bisitariak:** 1.977 (907 emakumezkoak; 1.070 gizonezkoak)

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Urumeara begira [HidroLogikak]

**Data:** Maiatzak 9 – ekainak 2

**Edukiak:** Erakusketa hau, HidroLogikak2019ko proiektuaren barruan dagoen lehendabizikoa da. Urumea ibaiaren ertzetan topatu daitekeen ondare industrialaren argazkiekin sortutakoa da eta Urumea ibaiak Goizuetatik Donostiara eta denboran zehar egiten duen bide eta bidaia ezagutu daiteke.

**Bisitariak:** 414 (221 emakumezkoak; 1.193 gizonezkoak)

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Zooteka

**Data:** Ekainak 21 – urriak 6

**Edukiak:** Posible al da aitzur zahar bat txori batean eraldatzea? Edo zapata molde zahar bat galgo baten buruan? Erakusketa honek birziklapenean oinarritutako artea maisumaila gorenera igotzea lortu duen Miquel Aparici artistaren lanaren lagin adierazgarri bat biltzen du. Bere eskulturak erabiltzen ez diren antzinako objektuen assemblageak dira, metalezkoak eta zurezkoak. Artistak objektuak era sortzailean eta irudimenez erabiltzen ditu era guztietako animaliei bizitza emanez beti bere jatorrizko egitura errespetatuz.

**Bisitariak:** 6.038 (3.156 emakumezkoak; 2.882 gizonezkoak)

**Sektorea:** Publiko orokorra

### -tik at [HidroLogikak]

**Data:** Uztailak 4 – abuztuak 25

**Edukiak:** *HidroLogikak2019* proiektuaren barruan dagoen bigarren erakusketa honetan eskultura eta argazkilaritza nahasten dituzten objektu artistikoak erakusten zaizkigu. Artistaren hitzetan: "Begiratzearen ekintzak begiratzen dugun objektuaren aurrean kokatzen gaitu. Bereizketa hori hausten duten

argazki batzuk egin nahiko nituzke. Gu ere natura deitzen diogun horren parte garela gogorarazten digutenak”.

**Bisitariak:** 1.297 (785 emakumezkoak; 512 gizonezkoak)

**Sektorea:** Publiko orokorra

### FotCIENCIA16

**Data:** Irailak 2 - 30

**Edukiak:** FOTCIENCIA16 urteko zientzia irudirik ikusgarrienak biltzen dituen erakusketa ibiltaria da. Ikerketa Zientifikoan Goi Kontseiluak (CSIC) antolatutako ekimen honek Jesús Serra Fundazioaren lankidetzan du eta Materialen Fisikako Zentroaren (CFM, CSIC-UPV / EHU zentro mistoa) eskutik bisitatuko du Donostia, Cristina Enea Fundazioaren laguntzarekin. FOTCIENCIA-n ikertzaileak eta ohiko herritarrak artista bihurtzen dira, argazkikamara zein mikroskopioa tresna dutela, ikerketa zientifikoaren mundua hobeto islatzen duten irudiak bilatzen, zientziaren lana zabala eta erakargarriagoa izatearen garrantziaz jabetuta.

**Bisitariak:** 1.136 (850 emakumezkoak; 286 gizonezkoak)

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Mingostasuna: lupuluaren ekologiak

**Data:** Urriak 18 - abenduak 1

**Edukiak:** Landarearen irudi eta gorputz kulturalaren arrastoak.

**Bisitariak:** 470 (256 emakumezkoak; 214 gizonezkoak)

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Gaua piztu

**Data:** Urriak 14 - abenduak 1

**Edukiak:** Irudi astronomikoek gure zerura leiho susmaezinak irekitzen dituzte eta unibertsoa ulertzen laguntzen digute. Galaxien argi ahulek urrutiko paisaiak marrazten dituzte. Aranzadiko astronomia taldeko kideek, beren astroargazkien bidez, espazioan eta denboran zehar ibilbidea erakutsiko digute.

**Bisitariak:** 457 (225 emakumezkoak; 232 gizonezkoak)

**Sektorea:** Publiko orokorra

### 10. Urteurrena

**Data:** Abenduak 13 - martxoak 15

**Edukiak:** 2009ko abenduaren 14an, gauza bitxi bat gertatu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko funtzionario baten mahai gainean. Bere zigilua ezartzean, Cristina Enea Fundazioak bere izena ofizialki erregistratu zuen eta izaera legala eman zitzaion. Nolanahi ere, gure lana hainbat hile lehenago hasi zen, buruan helburu argi bat genuela, ingurumenarekin jasangarriagoak eta adeitsuagoak diren ereduak eraldaketa soziala erdiestea. Gaur, atzera begiratzean, ezin ditugu gogoratu modu batean edo bestean gure proposamen didaktikoetan parte hartu duten 370.000tik gora lagunak. Baina espero duguna da beraiek gurekin izandako esperientzia ez ahaztu izana, konfidantza hori buruan dugula aurre egingo baitiogu klima-aldaketa erronka nagusia izango dugun bidaia berriari. Eta ibilbide horretan zu ere gure bidaide izatea nahiko genuke. *10. Urteurren zoriontsua!*

**Bisitariak:** 131 abenduaren 31ra arte (80 emakumezkoak; 31 gizonezkoak)

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Urtaroko pieza

**Data:** Abenduak 19 – martxoak 22

**Edukiak:** *Urtaroko pieza* izeneko ekimen hau, Cristina Enea Fundazioko erakusketa proiektuetako programaren barruan integratzen dena, Gipuzkoako zientzia eta kultur erakundeetako bildumetan ingurumenarekin eta zientziarekin erlazionatutako piezak ikusgai jartzean datza. Fundazioak, aukeratutako erakunde desberdinei beren bildumetako pieza bat Cristina Eneara ekartzea eskaintzen die; urtaro bakoitzeko erakunde bati. Piezek ingurumenarekin eta zientziarekin erlazionatutakoak izan behar dute eta edozein tipologiakoak izan daitezke. 2020ko neguko pieza, adibidez, Gordailuan dauden lau pieza dira: bi mailu eta erlauntzetarako abarasken argizaria kentzeko bi laban.

**Bisitariak:** 37 abenduaren 31ra arte (21 emakumezkoak; 16 gizonezkoak)

**Sektorea:** Publiko orokorra

### 2020ko Klima-aldaketaren egutegia

**Data:** Abenduak 20 – urtarrilak 26

**Edukiak:** Usandizaga Institutoko Publizitate Grafikako 2. mailako ikasleek hamargarren urtez Cristina Enea Fundazioko Egutegia diseinatu dute. Aurtengo gaia Klima-Aldaketaren aurkako borroka da, planetaren eta bertan bizi garenon biziraupenaren aldeko borroka. 2020rako, gure hirian gertatuko liratekeen hainbat espazio distopiko proposatzea erabaki dugu, garaiz jarduten ez badugu gerta daitezkeenak.

**Bisitariak:** 44 abenduaren 31ra arte (22 emakumezkoak; 20 gizonezkoak)

**Sektorea:** Publiko orokorra



## 1.2.- HITZALDIAK

### Garapen Jasangarrirako Helburuak. Mundua eraldatzeko 17 helburu [Agora K2050]

**Data:** Otsailak 27

**Hizlaria:** Federico Buyolo

(Ikus xehetasunak Iraunkortasunaren Behatokiaren atalean)

### Klima-aldaketa, munduko gazteak elkartzen dituen borroka [Agora K2050]

**Data:** Martxoak 27

**Hizlaria:** Hainbat

(Ikus xehetasunak Iraunkortasunaren Behatokiaren atalean)

### Klima-aldaketa marrazten

**Data:** Apirilak 5

Hizlariak: Maite Gurrutxaga, Iñaki Martiarena *Mattin*

**Edukiak:** "Euskal Irudigileak" elkartearekin batera antolatutako mahai inguru honetan, Maite Gurrutxaga eta Mattin ilustratzaileek, *Klima aldaketa, hau komeria* erakusketan izan duten beren parte-hartzea, marrazkiek honen eta beste ingurumen-arazo batzuen kontzientziazioan nola lagun dezaketen eta naturarekiko bere lanaren erlazioaren gainean hitzegingo digute.

**Partehartzaileak:** 12 pax (7 emakumezkoak; 5 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Defensoras chiapanecas alzando la voz frente a conflictos eco-territoriales

**Data:** Apirilak 10

**Edukiak:** Jardunaldiaren helburua da modu argian, irekian eta salaketa ikuspegiarekin lantzea Chiapasen ondare komunen, lurren eta lurraldearen defentsan lan egiten duten emakumeek bizi duten egoera eta borroka. Bertan izango dira Mikeas Sanchez (poeta eta ZODEVITE mugimenduko defendatzailea) eta Addy Pérez (CDMCH - Chiapaseko Emakumearen Eskubideen Zentroa). Proiektu erauztaileen aurrean beren borroka, defentsa eta erresistentziaren esperientzia ezagutuko dugu, bai eta giza eskubideen defentsak klabe feministan dituen arriskuak aztertu ere. Lumaltik Herriak Cristina Enea Fundazioarekin elkarlanean antolatutako jarduera, Donostiako Udalak diruz lagundua.

**Bisitariak:** 41 pax (41 emakumezkoak; 0 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Oraindik ez da berandu berotze globalaren kontra borrokatzeko [Agora K2050]

**Data:** Maiatzak 29

**Hizlaria:** Andreu Escrivá

(Ikus xehetasunak Iraunkortasunaren Behatokiaren atalean)

### Bioeraikuntzaren Adiskideak-GEA taldearen bilera, 25, urteurrena. Bioeraikuntza eta eguzki-endarra

**Data:** Ekainak 22

**Hizlaria:** Manolo Vilchez

**Edukiak:** Bioeraikuntza natura eta pertsonetikiko modu osasungarri, adeitsu eta kontzientean eraikitzeko era da. Bioeraikuntza serio, profesionala eta legala da, eta ez da garestia. Hiri mailan ere aplikatu daiteke gainera.

**Bisitariak:** 33 pax (21 emakumezkoak; 12 gizona).  
**Sektorea:** Publiko orokorra

### La influencia del cambio climático en nuestros vinos: Rioja y Txakoli [Agora K2050]

**Data:** Ekainak 26

**Hizlaria:** Olatz Unamunzaga, Ana Aizpurua, Urtzi Leibar, Garikoitz Ríos, Roberto Oliván

(Ikus xehetasunak Iraunkortasunaren Behatokiaren atalean)

### Patrimonio industrial y natural del río Urumea: dos visiones compatibles y complementarias [HidroLogikak]

**Data:** Uztailak 18

**Hizlaria:** Arturo Elosegi, Javier Puertas, Karlos Barcina, Luis Azurmendi, Mercedes Valenzuela

**Edukiak:** Urumea ibaiko ertzetan topatu dezakegun ondarea mota askotakoa izan daiteke, besteak beste, naturala eta industrial. Bi tipologia hauen arteko erlazioa batzuetan gatazkatsua izan daiteke baina beste batzuetan bateragarriak ere. Proposatzen den mahai inguru honetara industria eta natura ondareko teknikari eta espezialistak bi hauen arteko erlazioaz arituko dira.

**Bisitariak:** 27 pax (20 emakumezkoak; 7 gizona).  
**Sektorea:** Publiko orokorra

### ¿Cómo está afectando el cambio climático a los Pirineos? [Agora K2050]

**Data:** Irailak 18

**Hizlaria:** Idoia Arauzo

(Ikus xehetasunak Iraunkortasunaren Behatokiaren atalean)

### Mingostasuna: lupuluaren ekologiak

**Data:** Urriak 18

**Hizlaria:** Marc Badal (Haziera), Jakoba Errekondo (Bizi Baratzea), Gorka Iruretagoiena (Euskal Lupulo), Egoitz Zapiain (Zapiain sagardotegia)

**Edukiak:** Lupulua, sagardoa eta mingostasunaren inguruko doako topaketa irekia.

**Bisitariak:** 18 pax (12 emakumezkoak; 6 gizona).  
**Sektorea:** Publiko orokorra

### Emergencias climáticas en los medios de comunicación. La Imaginación Contaminada [Agora K2050]

**Data:** Urriak 30

**Hizlaria:** Óscar Clemente

(Ikus xehetasunak Iraunkortasunaren Behatokiaren atalean)

### Distopías y utopías. ¿Ciencia o ficción? Literatura climática, literatura para el cambio [Agora K2050]

**Data:** Azaroak 27

**Hizlaria:** Maruja Torres  
(Ikus xehetasunak Iraunkortasunaren Behatokiaren atalean)

### 1.3.- TAILERRAK ETA IKASTAROAK

#### Birziklatutako Gabonetako apaingarriak [Gabonak Zuretzat 2018]

**Data:** Urtarrilak 2

**Edukiak:** Jarduera honetan gabonetan etxea dotore jartzeko erabili ahal izango ditugun apaingarri ederrak sortuko ditugu, birziklatutako materiala eta gure irudimena erabiliz.

**Partehartzaileak:** 20 pax (10 emakumezkoak; 10 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra (umeak)

#### Dukearen altxor ezkutua [Gabonak Zuretzat 2018]

**Data:** Urtarrilak 4

**Edukiak:** Garai batean parkeko jabea izan zen Cristina dukesak altxor berezi bat ezkutatu zuen hemen bertan norbait. Aukera paregabea izango da abentura berri batean murgiltzeko! Hori bai, ez da lan erraza izango. Pistaz pista, frogak gaindituz ibilbidean aurrera egiten saiatuko gara altxorren bila.

**Partehartzaileak:** 20 pax (11 emakumezkoak; 9 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra (umeak)

#### Zuntza birziklatzea, edertzea eta aberastea [JantziAgain]

**Data:** Urtarrilak 13

**Edukiak:** Jantzien "adabaki eta berrerabiltzearen" artea zertxobait ahaztuta dago azkenaldian ehun-kontsumoaren "erabili eta bota" praktikagatik. Arropa-diseinatzaileek "adabakiak josi" edo "puntadak eta brodatuak jartzeko" teknikak gero eta gehiago erabiltzen dituzte beren sormenei estilo propioa emateko. Gaur egun oso modan dago "trashion-a", "trash" (zaborra) eta "fashion" (moda) hitz-elkartea dena. Edertasun bohemiarreko birziklatutako modeloak berrerabilitako beste jantziekin sortzea du helburu.

**Partehartzaileak:** 20 pax (20 emakumezkoak; 0 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

#### Tailer irekia: joskintza, moda eta birziklaketa [JantziAgain]

**Data:** Urtarrilak 27, otsailak 24, martxoak 31

**Edukiak:** Modari, joskintzari, jantzigintzari eta arropen pertsonalizazioari eta optimizazioari lotutako ideiak eta ezaguerak partekatzeko topagunea. Tytti Thusberg arropa jasangarri, *slow fashion* eta birziklatutako materialen diseinatzaileak koordinatua. *JantziAgain* egitasmoak beharrezko materialak eta josteko tresnak jartzen ditu partehartzaileen esku; ekarri zure arropak lana egiteko.

**Partehartzaileak:** 45 pax (45 emakumezkoak; 0 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

#### Kamishibairen hegaldia. Baduzu ikusterik? [LIBERA]

**Data:** Urtarrilak 27

**Edukiak:** Begiak irekita izan arren, benetan ikusten al dugu? Mattin ilustratzaileak SEO/BirdLiferekin batera sortutako ipuin honekin gure ingurunean gertatzen denaz ohartzeko begirada berri bat eskainiko digute. Horretarako jatorri japoniarra duen kontaketa grafikoa erabiliko dute eta ondoren sormen tailer bat egingo dugu. Animatzen al zarete betaurreko berri hauek probatzera?

**Partehartzaileak:** 20 pax (20 emakumezkoak; 20 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra (umeak)

### Artilea eta kitto!? [JantziAgain]

**Data:** Otsailak 10

**Edukiak:** Tailer honetako parte-hartzaileei ehun-teknika desberdinak erakutsiko zaizkie ehun-historiaren laburpen bat emanez, tartean gaur egungo ehun-industriaren rola azalduz, zeinagatik industria-sektore kutsatzaileenetako bat dela esaten den. Zuntz natural batzuk ezagutuko ditugu eta batez ere artile desberdinak. Ondoren, bi teknika zahar erakustiko dira "sprang-a" eta "nalbinding-a".

**Partehartzaileak:** 20 pax (20 emakumezkoak; 0 gizonaizkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Hazitegia egin eta zaintzeko tailer praktikoa [Haziera]

**Data:** Otsailak 13

**Edukiak:** Gure hazi propioak ugaltzeko fase garrantzitsu eta zail bat da hazitegia egitea. Ereite eta zaintza teknika nagusiak, substratu mota ezberdinak, aplikatu beharreko tratamenduak eta sor daitezkeen arazoak ezagutzeko, Karabelekon lan egiten duten lagunen esperientzia eta ezaguerak izango ditugu.

**Partehartzaileak:** 11 pax (10 emakumezkoak; 1 gizonaizkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Haziak erauzi eta gorde [Haziera]

**Data:** Otsailak 27, martxoak 18

**Edukiak:** Gure hazien uzta eta beren garbiketa eta gordetze egokia oso garai garrantzitsua dira. Horregatik, neguro tailer hau antolatzen dugu lan hauek modu egokian egiteko kontuan izan behar ditugun alorrak ezagutzeko. Beharrezko azalpenez gain, tailerrak zati praktikoa ere izango du non uzta ezberdinetako haziak erauzten, garbitzen, lehortzen eta gordetzen ikasiko dugun.

**Partehartzaileak:** 15 pax (9 emakumezkoak; 6 gizonaizkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Txapel zirkularra [JantziAgain]

**Data:** Martxoak 10

**Edukiak:** Hainbat ezaguera partekatuz zuen artilezko txapela, ehundura eta kolore desberdinekin era jasangarrian sortzera gonbidatzen zaituztegu.

**Partehartzaileak:** 13 pax (13 emakumezkoak; 0 gizonaizkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Dzirt-dzart saioa

**Data:** Martxoak 16

**Edukiak:** *Klima aldaketa, hau komeria* erakusketaren jardueren artean, bertso-saioen tankera duen ekimen hau proposatzen da, hainbat komikigilek gaitzartzailearen aginduetara marraztuko baitute. Modu askotako ariketak burutu beharko dituzte marrazkilariek. Batzuetan bakarka, bestetan taldean edo binaka. Eta gaiei dagokienez ere, denetarako emango du saioak. Pertsekuzio ariketa, kartzelakoa, bata bestearen azalpena marraztea e.a. Partehartzaileei dagokienez, gaur egun komikigintzaren alorrean lanean ari diren profesionalak izango ditugu geure artean.

**Partehartzaileak:** 7 pax (7 emakumezkoak; 0 gizonaizkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Lore tailerra

**Data:** Martxoak 30

**Edukiak:** Lore-arteak ingurune naturaletik eduki sinboliko eta adierazkor handiarekin datozen material bizidunez lan egiten du. Gizakia natura horren parte da eta bere materialek historian zehar lagundu diote bere manifestazio artistikoetan. Tailer honetan loreen, adarren eta berdeen hizkuntza adierazkorra ikertuko dugu; bere forma, ehundura, lerroa eta kolorea; bere antolamendu-forma desberdinen adierazkortasuna eta bere elkarte sinbolikoak. Garai historiko bakoitzeko izaera ikasiko dugu eta aukeratutako korrante artistikoan egokitzen den moldaketa txikia egingo dugu. Naturak hitz egiten digu, entzun nahi duzu?

**Partehartzaileak:** 20 pax (16 emakumezkoak; 4 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Zuntz-tapiz-oihal artea [JantziAgain]

**Data:** Apirilak 14

**Edukiak:** Tailer honetako parte-hartzaileei bastidore gaineko tapiz baten sorrerarako hastapen teknikak erakutsiko dizkiegu: ehunduren, erliebeen... arteko elkarrizketa bat, zuntz (artile, kotoi, soka, oihal), korapilo eta kolore desberdinak erabiliz.

**Partehartzaileak:** 20 pax (20 emakumezkoak; 0 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Baratze-ekologikoa [EtxEKOlanda]

**Data:** Apirilak 29 - maiatzak 27 (euskaraz); maiatzak 8 - ekainak 5 (gazteleraz); urriak 17 - 31 (euskaraz); azaroak 7 - 14 (gazteleraz)

**Edukiak:** "Oporrak izan eta hamar egunez zorientsu izan, baratze bat izan eta bitzta osorako zorientsu" baserriko jendearen esana da. Baratze batek lurreko fruituak emateaz gain, beste hainbat onura ere eskaintzen dizkigu, terapeutikoa eta lasaigarria baita. Tailer honetan, urte osoan zehar baratze ekologikoa mantentzeko trebetasunak eta oinarriko ezaguerak erakutsiko dira.

**Partehartzaileak:** 40 pax (20 emakumezkoak; 20 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Oihal gaineko EcoPrint teknika [JantziAgain]

**Data:** Maiatzak 12

**Edukiak:** Tailer honetako parte-hartzaileei EcoPrintaren teknika edo oihal gaineko estanzazio botanikoko teknika erakutsiko diegu. Inprimatze teknika honetan sustraiak, zurtoinak, hostoak eta loreak erabiliz pigmentua eta daukaten formak zuzenki oihalaren gainean sartzen dira.

**Partehartzaileak:** 20 pax (20 emakumezkoak; 0 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### JantziAgur - Outlet festa [JantziAgain]

**Data:** Maiatzak 26

**Edukiak:** Modari, joskintzari, jantzigintzari eta arropen pertsonalizaziori eta optimizaziori lotutako ideiak eta ezaguerak partekatze topagunea izan da JantziAgain. Urteetan garatutako proiektu honi itxiera festa alai bat egingo diegu. Bertara orain arte hemendik pasa diren lagun guztiak gonbidatu nahi ditugu eta ikasitakoa eta ikusitakoa partekatuko dugu.

**Partehartzaileak:** 66 pax (66 emakumezkoak; 0 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Zuriñeren abenturak [Aste Berdea]

**Data:** Ekainak 9

**Edukiak:** Tsunami doktoreak Zuriñe hartz zuriaren eskutitz bat jaso du, etsita dago bere mundua desagertzen ari dela ikusten duelako. Tsunamiri asmatzen dituen tramankuluekin laguntzeko eskatzen dio. Honela hasten da ipuin kontalari saio hau, non txikienek Klima Aldaketari buruzko hainbat kontu ikasi ahal izango dituzten. Jarduera amaitzeko Zuriñe gogoan izateko eskulan bat egingo da.

**Partehartzaileak:** 22 pax (15 emakumezkoak; 7 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra (umeak)

### Artile birjina tindatzeko tinte naturalak [JantziAgain]

**Data:** Ekainak 9

**Edukiak:** Tailer honetako parte-hartzaileak landare tintatzaileak eta zuntz naturalak bere erabilera erakutsiko diegu, artile birjinean zehazki. Tinte naturalekin nola tindatzen den ezagutuko dugu. Gainera, tintatzeko baliabide asko gure ingurunean daudela erakutsiko dugu, landareak edo baiak hiriingurumenean jaso daitezkeela alegia.

**Partehartzaileak:** 20 pax (20 emakumezkoak; 0 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### San Telmo Museoko 'Industria, aldaketaren eragile' aretora bisita gidatua [HidroLogikak]

**Data:** Uztailak 10, abuztuak 7

**Edukiak:** Industrializazioak gizartearen modernizazioa ekarri zuen eta aldaketa sakonak eragin, esparru ezberdinetan: gizartea, kultura, lana, politika. Aldaketekin batera krisialdiak ere izan ziren, gizartean eta populazioaren pentsamoldeetan eragina izan zutenak. Donostiak eta Urumeak fenomeno honen inguruan badute zer esana...

**Partehartzaileak:** 0 pax (bertan behera)

**Lekua:** San Telmo Museoa

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Miquelen xomorroak

**Data:** Uztailak 18

**Edukiak:** Ikusi dituzue Zooteka erakusketarako Miquel Aparicik prestatu dituen animaliak? Badakizue objektu zaharrez osatutako animalia magikoak direla? Horrelako zerbait sortzeko gai izango zinatekete? Miquelek erakutsiko dizue nola sortu ditzakezuen xomorro txikiak gure inguruan aurkitutako hainbat eta hainbat arrastorekin.

**Partehartzaileak:** 13 pax (10 emakumezkoak; 3 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Taller de iniciación al revelado al carbón [HidroLogikak]

**Data:** Uztailak 27

**Edukiak:** *-tik at* erakusketako artistaren eskutik, Javier de Reparaz, 1855ean asmatutako argazkiak errebelatzeko teknika ezagutzeko tailerra izango da hau. Ikatzarekin errebelatzeko sistema honekin Javier de Reparazek bere

erakusketan dauden artelanak sortu ahal izan ditu. XIX. mendeko teknika hau gaur egungo artelanak sortzeko berreskuratuko dugu.

**Partehartzaileak:** 10 pax (20 emakumezkoak; 10 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Haziera, hazien artxibora bisita [Haziera]

**Data:** Abuztuak 20

**Edukiak:** Tabakaleran ekainaren 7tik urriaren 6ra egongo den Uriel Orlow eta Jumana Mannaren erakusketen gurutzaketatik abiatuz, ibilbideak eta solasaldiak egingo dira. Tokikoak diren eta ahazten doazen ezagutzekin harremanetan jartzea proposatzen da. Ezagutza hauen tokira bertara hurbilduz eta abiapuntu honetatik erakusketako gaien inguruan solasteko asmoz. Horrela, artistek bat egiten duten lau gairen inguruan aritzeko bi saioko uneak proposatzen dira. Lehenengo egunean kultur zentrotik atera eta tokiko eragileekin ezagutzak aktibatzen saio praktiko bat egingo da. Bigarren egunean erakusketara egingo da bisita eta mugitutako ezagutzetatik tiratuz gai ezberdinen inguruan jardungo da. Egun honetako jardueran Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxeko, Haziera, hazien artxiboa, bisitatu egingo da.

**Partehartzaileak:** 17 pax (7 emakumezkoak; 10 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Brikomikro: eskalatu mundua

**Data:** Irailak 14

**Edukiak:** Noiraino ikus dezakete gure begiek? Zer da ikusi duzun gauzarik txikiena? Eskala makro, mikro eta nanoskopikoak ezagutuko ditugu. Cristina Enea parkean laginak jasoko ditugu eta mundua eskalatuko dugu lupen bidez, eta baita ere zerorrek eraiki ahal izango duzun etxeko mikroskopio baten bidez.

**Partehartzaileak:** 30 pax (20 emakumezkoak; 10 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Tomatada handia [Haziera]

**Data:** Irailak 24

**Edukiak:** Tomate-haziak ateratzen lagundu nahi badiguzue eta, era berean, etxera saltsa pixka bat eraman, ezin duzu Hazierako Tomatada Handia galdu. Arratsalde guztian zehar aldaera desberdineko tomateetatik haziak ateratzen izango gara Hazierako bilduma berritzeko eta tomateetako mamiaz guztiontzako saltsa prestatuko dugu. Zenbait kristal-bote garbirekin eta eskuak apur bat zikintzeko gogoarekin etorri behar duzue bakarrik...

**Partehartzaileak:** 10 pax (10 emakumezkoak; 0 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Hazilana [Haziera]

**Data:** Urriak 8, urriak 22, azaroak 5

**Edukiak:** Iritsi da udazkena, eta ondorioz, gure baratzeke hainbat hazi jasotzeko garaia da. Cristina Enea Fundazioaren Haziera hazi artxiboarekin nolabaiteko harremana duzuen lagunei deialdia egin nahi dizuegu, elikagai ezberdinen haziak (piperrak, kalabazina, errefautxoak, artobeltza, letxuga...) erauzteko eta garbitzeko zuen laguntza beharrezkoa baitugu. Udazkenean zehar hiru lan-jardunaldi partekatzen gonbidapena helarazi nahi dizuegu,



non elkarrekin lan egiten dugun bitartean hazien ugalketari eta baratzeko lanei buruzko zalantzak eta esperientziak elkartrukatuko ditugun. Honela, denon artean hazi-artxiboa bizirik eta eguneratua edukiko dugu. Haziak erauzteko edo garbitzeko baldin badituzu ere, ekar itzazu zure landareak ere.

**Partehartzaileak:** 21 pax (20 emakumezkoak; 1 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Haziak erauzteko formazio tailerra [Haziera]

**Data:** Urriak 9, azaroak 6

**Edukiak:** Gure hazien uzta eta beren garbiketa eta gordetze egokia oso garai garrantzitsuak dira. Horregatik, udazkeneko tailer hau antolatzen dugu lan hauek modu egokian egiteko kontuan izan behar ditugun alorrak ezagutzeko. Beharrezko azalpenez gain, tailerrak zati praktikoa ere izango du non uzta ezberdinetako haziak erauzten, garbitzen, lehortzen eta gordetzen ikasiko dugun.

**Partehartzaileak:** 12 pax (7 emakumezkoak; 5 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Nork esan du hemen ez direla izarrak ikusten?

**Data:** Azaroak 9

**Edukiak:** Tailer honetan proiektzio baten bidez konstelazioak zer diren ikasiko dugu, konstelaziorik inportanteenak ezagutuko ditugu eta tailerrarekin amaitzeko planisferio bat eraikiko dugu euritako batean.

**Partehartzaileak:** 7 pax (7 emakumezkoak; 0 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Eskulanekin belaunaldiak lotzen [Gabonak Zuretzat 2019]

**Data:** Abenduak 23

**Edukiak:** Belaunaldien arteko tailer honetan, nagusiek birziklatutako materialekin jostailu ederrak egiten irakatsiko diete gaztetxoei. +55-rekin elkarlanean.

**Partehartzaileak:** 20 pax (10 emakumezkoak; 10 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra (umeak)

### Anbrosioren abenturak [Gabonak Zuretzat 2019]

**Data:** Abenduak 27

**Edukiak:** Cristina Eneako dukeen benetako istorioa ezagutu nahi? Gabon hauetan horretarako pertsona egokia izango dugu parkean, Anbrosio, dukeen etxezainen seme gazteena. Mandasko dukeen jauregian hazi zen, eta handitzean bertan egin zuen lan etxezain bezala. Gertu-gertutik ezagutu zituen Fermin eta Cristina, eta badirudi dukeek ere bazituztela sekretutxoak. Anbrosioren eskutik, parkeko historia eta txorrik berezienak ezagutu ahal izango ditugu.

**Partehartzaileak:** 20 pax (10 emakumezkoak; 10 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra (umeak)

### Urteari agur esateko prest? [Gabonak Zuretzat 2019]

**Data:** Abenduak 30

**Edukiak:** Tailer honetan txano eta maskara dibertigarriak egingo ditugu birziklatutako materiala erabiliz, urte zahar festan primeran pasatzeko.

**Partehartzaileak:** 20 pax (13 emakumezkoak; 7 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra (umeak)

## 1.4. ESKOLA-HEZIKETA

### Hezkuntza Eskaintza

**Data:** Urtarrilak 1 – abenduak 31

**Edukiak:** 2019. urtean ere indarrean egon dira ikastetxe eta taldeei bideratutako Hezkuntza Eskaintzak, 2018/2019 eta 2019/2020 ikasturteei dagozkienak. Jarduerak Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleei zuzenduta daude, bai eta helduei ere.

**Partehartzaileak:** 8.787 pax (4.256 emakumezkoak; 4.531 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko eskolakoa

### Eskolen arteko foroa [Eskola Agenda 21]

**Data:** Apirilak 9-10

**Edukiak:** Eskola Agenda 21 egitasmoan parte hjartzen duten Donostiako ikastetxeetako ikasleen topaketa, lantzen diharduten gaiaren inguruan eginiko lan eta proposamenak komunean jartzeko. LHko ikasleak.

**Partehartzaileak:** 235 pax (119 emakumezkoak; 116 gizonezkoak).

**Lekua:** eskoletan

**Sektorea:** Publiko eskolakoa

### Udal foroa [Eskola Agenda 21]

**Data:** Maiatzak 15

**Edukiak:** Udal ordezkarien eta Donostiako Eskola Agenda 21 egitasmoa ikasleen arteko topaketa.

**Partehartzaileak:** 186 pax (93 emakumezkoak; 93 gizonezkoak).

**Lekua:** Donostiako Udaletxean

**Sektorea:** Publiko eskolakoa

### Eskola Agenda 21 [Eskola Agenda 21]

**Data:** Urtarrilak 1 – abenduak 31

**Edukiak:** Eskola Agenda 21 ekimenean parte hartu duten Donostiako ikastetxeetako ikasle kopurua.

**Partehartzaileak:** 16.854 pax (9.236 emakumezkoak; 7.618 gizonezkoak).

**Lekua:** eskoletan

**Sektorea:** Publiko eskolakoa

### Itsaslaminak

**Data:** Urte osoan zehar

**Edukiak:** Biarritzeko Malandain Balletarekin eta Iruñeko Udaleko Ingurumen Heziketarako Zerbitzuarekin elkarlanean Gipuzkoako, Nafarroako eta Pirinio Atlantikoetako ikasleen artean plastikoen itsasoetan sortzen dituzten arazoak buruz kontzientziatzeko eta sentsibilizatzeko mugaz gaindiko ekimena. Proiektuak ingurume-hezkuntza eta gorputz espresioa uztartzen ditu metodologia eta baliabide pedagogiko berritzaileak erabiliz.

Ekimenak ikastetxez-ikastetxeko saio teoriko-praktiko didaktikoak eskaintzen ditu parte hartzen duten ikastetxeen artean, bai eta Biarritzeko Malandain Balletak emandako ballet ikuskizun bat ere.

**Partehartzaileak:** 423 pax (301 emakumezkoak; 122 gizonezkoak).

**Lekua:** eskoletan eta Victoria Eugenia Antzokia

**Sektorea:** Publiko eskolakoa

## **EtxEKOlanda**

**Data:** Urte osoan zehar

**Edukiak:** Geroz eta gehiago dira, hirian bizi arren, nekazaritza ekologikora gerturatu nahi duten pertsonak, toki murriztua izan arren euren barazki eta berdura propioak landatuz. Hiriko baratzak, balkoi eta terrazatxoak, zabaltzetakoak, ohikoak bihurtzen ari dira gure herri eta hirietan, eta dakartzaten onurak ugariak eta askotarikoak dira. Horregatik, Cristina Enea Fundazioak eta Donostia Kulturak sustaturiko EtxEKOlanda egitasmoaren helburua da hiriko eta etxeetako baratze ekologikoak lantzen eta diseinatzen hasteko interesa duten pertsona guztientzat ingurumen formazio, partaidetza, sentsibilizazio eta didaktika tresnak eskaintzeko topalekua izatea. Gainera, Donostiako Eskolako Agenda 21 ingurumen sentsibilizazioaren programaren testuinguruan, hiriko baratzen erabileran eta sentsibilizazio ekologikoan formazio praktikorako egitasmoetan parte hartzeko aukera eskaintzen die ikastetxei. Une hauetan, Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxeko, Lugaritz eta Intxaurren Kultur Etxeetako ekipamenduak ditu egitasmoak, eta bertan garatzen dira jarduerak, baina proiektua beste hainbat kultur etxetara hedatzeko pausoak ere ematen dihardugu.

**Partehartzaileak:** 107 pax (90 emakumezkoak; 17 gizonezkoak).

**Lekua:** eskoletan eta Donostiako Kultur Etxeetan

**Sektorea:** Publiko eskolakoa

## **ONDakin**

**Data:** Urte osoan zehar

**Edukiak:** Ecoembes irabazi-asmorik gabeko elkarteak da eta Estatu osoan ontzien berreskuratze lanak egiten ditu. ONdakin proiektua Ecoembes, Sanmarkos Mankomunitatea eta Cristina Enea Fundazioaren ingurumen hezkuntzarako apustua da, beraien jardueren oinarri bat izanik, biztanleriaren parte-hartzea hezkuntzaren bitartez bakarrik lortuko dugu eta. Bereziki, irakaskuntzaren arloan ingurumena geletan sartu nahi da eta gelak ingurumenera atera, baliabide hezigarriak eskainiz ingurumen balioetan hezteko.

**Partehartzaileak:** 4.955 pax (2.500 emakumezkoak; 2.455 gizonezkoak).

**Lekua:** eskoletan

**Sektorea:** Publiko eskolakoa

## **Eskolan Konposta**

**Data:** Urte osoan zehar

**Edukiak:** San Marko Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan eskola baratzak dituzten hainbat ikastetxe daude, bertan beren barazki eta berdura landatzen dituztelarik. Nekazaritza-ustiapen txiki hauek helburu didaktikoa izaten dute, ikasleak izaten baitira baratza zaintzearen arduradunak, horrela nekazal mundura, bizi-ziklotara, eta ekologiarara hurbilduz, baita elikadura burujabetzara eta elikadura osasuntsura ere. Konpostagailuak ere izaten dira laborantza gune horietako batzuetan, baratzekeko soberakinak tratatu eta konposta lortzeko balio dutenak. Hala ere, eskola baratza guztiek ez dute konpostagailurik, dutenen artean asko beren aukeren azpitik erabiltzen dira, eta oso gutxitan erabiltzen da eskola komunitatearen sentsibilizaziorako elementu didaktiko gisa. Era berean, eskola hauetako jangeletan hondakin organiko ugari sortzen da, eta ez da beti konpost guneetara eraman ahal izateko modu egokian jasotzen.

Horrengatik guztiagatik, hezkuntza arloan konposta sustatzeko plana eratu nahi da, gaia modu integralean jorratuz, eta ingurumen heziketa oinarritzat hartuta.

**Partehartzaileak:** 2.200 pax (1.265 emakumezkoak; 935 gizonezkoak).

**Lekua:** eskoletan

**Sektorea:** Publiko eskolakoa

## 1.5.- ZIKLO ETA PROIEKZIOAK

### Asterix & Obelix [Gabonak Zuretzat 2018]

**Data:** Urtarrilak 3

**Edukiak:** Kristo aurreko 50. urtean gaude. Erromatarrek Galia guztia okupatu dute. Guztia? Ez! Galiar herri txiki bat oraindik libre da, eta beti erasotzaileak gelditzen dituzte. Egoerarekin suminduta, Julio Zesar-ek taktikak aldatzeko erabakia hartzen du. Indarrez ezin baditu garaitu, luxuzko erromatar herri bat eraikiko dute: "Jainkoen egoitza".

**Partehartzaileak:** 17 pax (10 emakumezkoak; 7 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra (umeak)

### Ladrones de tiempo

**Data:** Martxoak 14

**Edukiak:** Ahaztu ezazue ura, baita petrolio eta mineral arraroak ere. Denek nahi duten beste baliabide bat dago: gure denbora. Dokumental hau dirua trukerako txanpon nola bilakatu den azaltzen digun ikerketa bat da, eta baliabide preziatu baina mugatu horren kontrola nola erreklamatu dezakegun azaltzen du. Cosima Dannoritzer zuzendariak, beste behin ere gure bizimoduen eta ohituren jasangarritasunean jartzen du arreta, zaharkitzapen programatuari buruzko *The Light Bulb Conspiracy* lan txalotuarekin egin zuen bezala. Proiektzioaren ondoren zuzendariarekin berarekin solasteko eta inpresioak trukatzeko aukera izango da.

Saretuz-ekin elkalanean.

**Partehartzaileak:** 98 pax (70 emakumezkoak; 18 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### El jovencito Frankenstein [Udako zinema parkean]

**Data:** Ekainak 28

**Edukiak:** Frederick Frankenstein trebetasunik gabeko doktore gazteak Transilvaniara joan behar du aitonaren gazteluaz arduratzeko. Gaztelu erraldoiak sekretu bat baino gehiago gordetzen ditu, eta gazteak liburu bat aurkitzen du, non azaltzen den, urratsez urrats, hildako bati bizitza nola itzuli. Eskuliburu arraro horren erabilpen oso zehatza eginez, eta maitatua izateko helburuarekin, Inga eta Igor konkardenarekin batera, doktorea gizaki berri bat sortzen saiatuko da.

**Partehartzaileak:** 45 pax (35 emakumezkoak; 10 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### El mago de Oz [Udako zinema parkean]

**Data:** Uztailak 5

**Edukiak:** Dorothy (Judy Garland) Kansaseko bere osaba-izeben etxean bizi den gaztea da. Tornado batek eskualdea zeharkatzen duenean, gaztearen etxea xurgatzen du harekin barruan. Urakana amaitzen denean, Dorothy ohartzen da mundu arraro eta zoragarri batera iritsi dela. Oz, magia existitzen den tokira. Etxera itzultzeko gogoz, Dorothy baldosa horiko bidea ibiltzen hasten da, Hiri Esmeraldaraino eramaten duen bidea hain zuzen. Bertan Oz-en bizi den azti zaharrenaren etxea dago. Berak bakarrik ordea, Kansasera itzuli ahal izango dio.

**Partehartzaileak:** 36 pax (21 emakumezkoak; 15 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

## **Yugo & Lala [Gabonak Zuretzat 2019]**

**Data:** Abenduak 26

**Edukiak:** 10 urteko neskatila bihurria eta abenturazalea den Yugo-k bere aitari istorio bera kontatzen dio beti: bera izan zela hodeietako fantasiako erresuma bateko bisitari gizaki bakarra. Hodeietako erresuman Lala eta Osaba Artzaren laguna egin omen zen. Eta hirurek Tigre Jeneralaren aurka borroka egin zuten. Erresuman geratzen den pozoindu gabeko ur bakarra arratoi soldaduen kontrolpean dagoela jabetzen direnean, Yugo eta bere lagunek erresuma salbatu behar dute berriz.

**Partehartzaileak:** 20 pax (15 emakumezkoak; 5 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra (umeak)

## 1.6.- IRTEERAK

### JolasMENDI baso txangoak familiartean

**Data:** Urtarrilak 12 (Uliako basoa), otsailak 9 (Arditurri), martxoak 23 (Artikutza), apirilak 6 (Oianleku), maiatzak 4 (Arritxulo), ekainak 1 (Ereñozuko basoa), irailak 28 (Santa Engrazi), urriak 26 (Aiako Harria), azaroak 17 (Urdaburu mendia)

**Edukiak:** Gero eta gehiago dira haurrak naturarekin harremanetan hezteak beraien garapenerako duen garrantzia azpimarratzen duten ikerketak. Hori dela eta, Bihotz Inguru-Baso Eskola elkartearekin elkarlanean, familiartean egiteko irteerak antolatu ditugu. Ibilbideak haurrei egokituak izango dira eta hauen helburua Donostialdean ditugun baso eta naturgune desberdinak ezagutzeko aukera eskaini eta naturarekin harremana sustatzea da.

**Partehartzaileak:** 89 pax (51 emakumezkoak; 38 gizonezkoak).

**Lekua:** batzuk

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Añarbeko urtegiara bisita [HidroLogikak]

**Data:** Martxoak 24, maiatzak 11, maiatzak 12, ekainak 29, irailak 15, ekainak 30, irailak 14

**Edukiak:** Gipuzkoako populazioaren %44a urez hornitzen duen Añarbeko urtegiaren azpiegiturak eta bertan egiten diren lanak gertutik ezagutu ahal izango ditugu bisita honetan. Horrez gain, presa inguratzen duen ingurune ederraz gozatu ahal izango dugu bertatik bertara; ur-masa egonkorrek ekosistemetan duen eragina ikusi ahal izateko, eta balio paisajistiko eta natural handia duen gune hau hobeto ezagutzeko. Añarbeko Urak-ekin lankidetzan.

**Bisitariak:** 140 pax (61 emakumezkoak; 79 gizonezkoak).

**Lekua:** AGASAKo ekipamenduak

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Loiolako hondakin uren araztegia [HidroLogikak]

**Data:** Maiatzak 4, maiatzak 5, irailak 7, irailak 8

**Edukiak:** Bisita honetan, itsasora isuri aurretik etxeko eta industriako hondakinrei, baita euriurei ere egiten zaizkien saneamendurako tratamenduak eta bertako azpiegiturak ezagutuko ditugu. Halaber, manipulazioan eta esperimendazioan oinarritutako tailer didaktiko bat egingo dugu, arazketa prozesuaren fase bakoitzak eskalan nola funtzionatzen duen eta uraren kalitatean duen eragina ezagutzeko. Añarbeko Urak-ekin lankidetzan.

**Bisitariak:** 52 pax (30 emakumezkoak; 22 gizonezkoak).

**Lekua:** AGASAKo araztegia

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Petritegiko edateko uren araztegia [HidroLogikak]

**Data:** Maiatzak 18, maiatzak 19

**Edukiak:** Bisita honetan, kontsumorako prest izan aurretik Añarbeko urtegitik datorren urari egiten zaizkion potabilizaziorako tratamenduak eta berauek garatzeko azpiegiturak ezagutu ahal izango ditugu. Manipulazioan eta esperimendazioan oinarritutako tailer didaktiko bat egingo dugu baita ere, potabilizaziorako prozesu bakoitzak eskalan nola funtzionatzen duen eta uraren kalitatean duen eragina ezagutzeko. Añarbeko Urak-ekin lankidetzan.



**Bisitariak:** 22 pax (10 emakumezkoak; 12 gizonezkoak).

**Lekua:** AGASako uren araztegia

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Urumea ibaitik jaitsiera piraguan [HidroLogikak]

**Data:** Maiatzak 26, ekainak 1

**Edukiak:** Ura bideratzeko lanen ondorioz, Martutenen eraikitako moilatik abiatuz, ibaiaren jaitsiera egingo dugu kanoan (2, 3 edo 4 lagun bakoitzean), Koipeko arrapalaraino. Urumea bere uretatik zehar nabigatzeko aukera aparta, arraunean eta bere bidean izan dituen aldaketak behatuz.

**Partehartzaileak:** 40 pax (28 emakumezkoak; 12 gizonezkoak).

**Lekua:** Urumea ibaia

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Urumea ur ertzetik bizikletan [HidroLogikak]

**Data:** Ekainak 30

**Edukiak:** Kalapieren eskutik eta Urumeako bokaletik ezker aldean zehar ibiliko gara Fagollaga arte eta buelta eskuineko ertzetik egingo da bertan dauden industria ondare elementuak komentatuz. Ibilaldi honetarako ezinbestekoa da bizikleta erabileran domeinua eta ohiko erabilerarako trebezia izatea. Ia laua da Fagollagara iritsi baino lehen aldapa txiki batekin. Ibilbide osoa bidegorri eta landa-bideetatik egingo da Fagollaga eta Hernaniko Electroquímica arteko gutxi gorabehera 500 metro inguruko errepide-zati batekin. Kaskoa erabiltzea gomendatzen da.

**Partehartzaileak:** 19 pax (10 emakumezkoak; 9 gizonezkoak).

**Lekua:** Urumea ibaia

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Urumea ibaitik jaitsiera kanoan [HidroLogikak]

**Data:** Uztailak 20, abuztuak 3

**Edukiak:** Ura bideratzeko lanen ondorioz, Martutenetik abiatuaz ibaiaren jaitsiera egingo dugu kanoan (2, 3 edo 4 lagun bakoitzean), Koipeko arrapalaraino. Urumea bere uretatik zehar nabigatzeko aukera aparta, arraunean eta bere bidean izan dituen aldaketak behatuz.

**Partehartzaileak:** 40 pax (30 emakumezkoak; 10 gizonezkoak).

**Lekua:** Urumea ibaia

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Tokiko barietateei buruzko jarduera CPIE Littoral Basque-n [Haziera]

**Data:** Urriak 2

**Edukiak:** Domaine d'Abbadie-n (Hendaian) Euskal Herriko eta Akitaniako bertako fruta arbola bilduma interesgarria dago. Frutabilduma hau ezagutzeaz gain, bertako aldaera desberdinetako sagar bilketan laguntzeko aukera izango dugu.

**Partehartzaileak:** 9 pax (5 emakumezkoak; 4 gizonezkoak).

**Lekua:** Domaine d'Abbadie (Hendaian)

**Sektorea:** Publiko orokorra

### **Cristina Eneako 4 urtaroak: udazkena**

**Data:** Urriak 27

**Edukiak:** Cristina Enea parkeko zuhaitz eta landareak urtean zehar aldatuz doaz, eta urtaro bakoitzak badu bere berezitasuna eta bere xarma. Udazkenean gingkoa horiz janzten zaigu fruituak adarretatik zintzilik eskaintzen dizkigula, astigarrek gorri sorta amaitezinezko hostoak erakusten dizkigute eta gaztainak prest daude zuhaitzetatik erori eta lurra morkotsez betetzeko. Familientzako jarduera honetan, udazkeneko ikuskizun berezi hontaz gozatu eta parkeak eskainitako altxor txikiekin eskulan bat sortuko dugu.

**Partehartzailerak:** 19 pax (15 emakumezkoak; 4 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### **Montesquieu eskualdeko Kontserbatorioko 24. antzinako zuhaitz eta fruituen jaialdia [Haziera]**

**Data:** Azaroak 23-24

**Edukiak:** Conservatoire Végétal Régional d'Aquitaine-k bertako fruta-arbolen azoka handia antolatzen du urtero. Ekitaldi eder bat da non ehunka fruta-arbola-aldaera ezagutu eta eros daitezke. Bertatik gertu, Le Biau Germe dago, hazien ekoizpen ekologikoko gune interesgarri bat. Bere ekoizleetako batekin, ekoizle-sare honek era horizontalean biltzar bidez nola lan egiten duten ezagutzeko aukera izango dugu. Irteera 23an, larunbatean, goizean izango da eta itzulera 24an, igandean, arratsaldean.

**Partehartzailerak:** 6 pax (2 emakumezkoak; 4 gizonezkoak).

**Lekua:** Conservatoire Végétal Régional d'Aquitaine

**Sektorea:** Publiko orokorra

### **Semillas Elosegui bisita [Haziera]**

**Data:** Abenduak 3

**Edukiak:** Urte honen amaieran, Elosegui hazi dendak bere ateak itxiko ditu behin betiko. Haziera-tik agur bisita txiki bat antolatu dugu "erremolatzaren" dendaren historia ezagutu ahal izateko ere. Ehun urte baino gehiagotan hiriko eguneroko paisaiaren parte izan den denda bat, Bretxa merkatuko nekazaritza-mikrokosmos txikiaren elementu garrantzitsua izan dena.

**Partehartzailerak:** 22 pax (18 emakumezkoak; 4 gizonezkoak).

**Lekua:** Semillas Elosegui

**Sektorea:** Publiko orokorra

## **1.7.- PROIEKTUAK ETA KANPAINAK**

### **1.7.1.- Proiektuak**

#### **JantziAgain**

*JantziAgain* egitasmoak arropa, ideiak eta ezaguerak partekatzeko topaleku bat sustatzen du, betiere moda, jostintza, jantzigintza eta arroparen pertsonalizazioaren eta optimizazioaren esparruan. Hileko bigarren igandean, ehungintza jarduerari lotutako tailer tematikoak izaten dira. Hile bakoitzaren azken igandean arropa partekatzeko merkatua eta Tytti Thusbergék koordinatutako tailer irekia.

#### **Haziera. Hazien artxiboa**

Haziak eta beren inguruko jakinduria zabaltzeko eta partekatzeko lekua da. Eskala txikiko nekazaritzari eusteko, eta landutako bioaniztasunaz kezkatzen diren pertsona eta erakundeentzako topagunea. Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxean hazien artxibo honek landa munduari lehio bat irekitzen dio.

#### **Agora K2050**

Egitasmo honetan, hilero San Telmo Museoan izango diren hitzaldi, mahai-inguru eta solasaldi publikoen bidez gai ezberdinetako hainbat aditurekin iritzia partekatzeko aukera egongo da egungo gizartearen ekoizteko, kontsumitzeko eta ugaltzeko moduei lotutako ingurumen inpaktoei eta inpakto sozialei buruz.

#### **HidroLogikak**

Ura ezinbesteko elementua da bizitzarentzat. Ura zaintzea funtsezkoa da planetarentzat eta gure behar fisiko eta espiritualak estaltzeko. HidroLogikak-ek uraren inguruko prestakuntza- eta sentsibilizazioprozesuak bultzatzen ditu, eta aurten, Urumea ibaitik hasita haren arrorantz eta beste zenbaiterantz zabalduko du begirada, uraren hiri-zikloa aintzat hartuz. Itsas zaborraren arazoari eta ibaiak itsasoarekin duten loturari helduko zaie, eta ibai, itsasoeta itsasertzearen ekosistemak garbi eusteko saneamendu-sistemak zein garrantzitsuak diren ere azalduko da. Ikuspegi holistiko eta sistemikoarekin, Urumean zehar arraunean jardungo dugu, eta Altza eta Antiguako auzoetara ere joango gara, uraren beste bide eta ibilbide batzuk ezagutzeko. Honako hauen laguntzarekin: Loiolako Kultur Etxea (Donostia Kultura), Añarbeko Uren Mankomunitatea, Kontadores - Gazteria, Altzako Historia Mintegia eta Arrauning.

#### **Aste Berdea (ekainak 3-9)**

Ekainaren 5ean ospatzen den Ingurumenaren Mundu Egunarekin batera, Cristina Enea Fundazioak hainbat jarduera antolatu ditu ekainaren 2tik 10era, Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxean, bai eta Ulia Interpretazio Zentroan ere. Txotxongilo emanaldiak, irteerak itsasontzian, sari-banaketak eta beste hamaika ekintza izango ditugu, honelako egun berezi bat behar bezala ospatzeko, adin eta mota guztietako jendeari eskainitako egitarauarekin.

#### **Udako zinema parkean (ekainak 28 - uztailak 5)**

*Zooteka* da Cristina Eneako udako erakusketaren izenburua. Bertan birziklapenean oinarritutako artea maisu-maila gorenera igotzea lortu duen Miquel Aparici artistaren lanaren lagin adierazgarri bat biltzen da. Bere

eskulturak erabiltzen ez diren antzinako objektuen assemblageak dira, metalezkoak eta zurekoak. Artistak objektuak era sortzailean eta irudimenez erabiltzen dituzte era guztietako animaliei bizitza emanez beti bere jatorrizko egitura errespetatuz. Gai hori abiapuntutzat hartuz, eta udako zine zikloaren harira, Miquel Aparici en eskulturrei keinu bat egiteko asmoz, Cristina Enea parkean bi filmen emaldiak egingo ditu. Cristina Enea parkearen sarreran, guardaren etxearen eta haurren jolaslokiaren ondoan.

### **Hamakenea (uztailak 15 - irailak 15)**

Hamakenea, Cristina Enea parkeko hamaka eta aulki zintzilikarien aldi baterako instalazioa da. Ekimen honi esker parkea beste ikuspegi batetik begiratzera eta esperientzia berri bat gozatzera gonbidatuko ditugu bisitariak. Atsedena hartu eta aire zabalaz gozatzeko lekua izango da, naturarekin bat egiteko, txorien kanta entzuteko eta zergatik ez: lo kuluxka egiteko. Egonaldi atsegina eta osasuntsua pasatzeko aukera paregabea da, non gorputza eta adimena hamaken kulunka gozoaren bitartez erlaxatuko diren. Hamakenean 3 eta 9 urte bitarteko haurrek ere jolastu eta esperimendu dezakete, parkearen gozamenarekin.

### **Mugikortasunaren Europar Astea (irailak 16-22)**

*Mix and Move!* lelopean ospatuko da aurtengo europar astea. Hiritarrei gonbitea luzatzen zaie egunerokoan garraiobide aktibo, publiko eta iraunkorrak erabiltzeko, eta 'multimodalitateak' ematen dituen aukeren gainean atentzia emanez: garraiobide desberdinen konbinazioa bidaia bakar batean edo bidaia desberdinetan. Multimodalitate-konzeptuari atxikitzeak esan nahi du gure hirietan mugitzen garen modua birpentsatu eta mugikortasun-modu berriak probatzeko borondatea izan behar dugula, bereziki bidaia motzak ibiliz edo bizikletaz egin daitezkeenean. Honela ez da soilik ingurumeneko inpaktu positiboa lortzen, baizik eta sasoiari gaudela aurki dezakegu, zorientsuagoak garela eta dirua aurrezten dugula.

### **Libera**

Naturaguneetako zaborraren gaiari aurre egiteko, littering deritzona, zabor horren kopuruari, osaketari, jatorriari, portaerari eta pilaketa-guneei buruz gehiago jakin beharra dago, besteak beste. Horrela, arazo horri aurre egiteko irtenbide eraginkorrak antzeman ditzakegu. Horregatik LIBERA egitasmoak arazo hori hobeto ezagutzeko espreski sorturiko arlo bat dauka. Bertan, Ecoembesek eta SEO/BirdLifek (ekimenaren bi bultzatzaileak), GKEekin, unibertsitateekin eta Cristina Enea Fundazioa bezalako erakundeekin elkarlana burutzen dute, metodologia eta tresna berritzaileak garatzeko, zientzia herritarra esaterako, lurreko, itsasoko eta ibaietako ekosistema ezberdinen ezagutza areagotzeko.

### **Nekazal Kultura Eskoletara**

Gipuzkoako Landa Garapen Agentziek, Eusko Jaurlaritzako Ingurugelak eta Cristina Enea Fundazioak bat egin dugu, eta baserrietako kulturaren zaindari eta ikur diren haziak ardatz hartuz, landa ingurua eta nekazal kultura ikastetxe eta eskoletara gerturatzeko Nekazal kultura eskoletara proiektua jarri dugu abian.

### **Hegaztien Eguna [urriak 5-6]**

Cristina Enea Fundazioak hegaztien ezagutza eta babesa bultzatzeko Hegaztien Eguna ospatuko du urtero bezala. Aurtengoan Ulia Interpretazio Zentroan urriak 5ean ospatuko den ipuin kontalari saio berezi batekin.

### **Zientzia, teknologia eta berrikuntzaren astea (azarokak 7-9)**

Aurten Euskal Herriko Unibertsitateak antolatzen duen Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Astearekin bat egin du Cristina Enea Fundazioak. Zientzia gure egunerokotasunean dago nahiz eta sarritan ez konturatu. Naturarekin harreman izugarria dauka, gizakiok egiten dugun naturaren interpretazioa delako. Inguruan gertatzen denari buruz jakin-mina duten guztiek -gazteek zein helduek, umeez zein nerabeek- aukera izango dute zientzia lanbide dutenekin zientzia ikusi, entzun, sentitu eta horretaz hitz egiteko.

### **FruitOndoan**

Cristina Enea Fundazioak hiriko nekazaritzaren sustapenaren alde bere aletxoak jarri du Gipuzkoako bertako frutaarbolaren lehen sarea sortuz, FruitOndoan, hiriko gune publikoetan, eta beti ere ikuspegi sozio-komunitario, parte-hartzaile eta agroekologiko batetik, nekazaritzaren eta hiriaren arteko zubiak eraikiz.

### **Urtaroko pieza**

Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxean Gipuzkoako zientzia eta kultur erakundeetako bildumetako, eta ingurumenarekin eta zientziarekin erlazionatutako, piezen hiruhileko mikroerakusketen programa da Urtaroko pieza. Ekimen hau, Cristina Enea Fundazioko erakusketa proiektuetako programaren barruan integratzen dena, Gipuzkoako zientzia eta kultur erakundeetako bildumetan ingurumenarekin eta zientziarekin erlazionatutako piezak ikusgai jartzean datza. Helburua da bilduma horietako jakintzan eta ezagutzan sakontzea. Izan ere, fundazioak lantzen dituen gaiekin lotutako pieza asko dago gure lurraldeko hainbat eta hainbat erakundetan eta hauei leku berezi bat eskaini nahi zaie Cristina Enea parkean dagoen zentroan. Fundazioak, aukeratutako erakunde desberdinei eskainiko die beren bildumetako pieza bat Cristina Eneara ekartzea.

### **Itsaslaminak**

Biarritzeko Malandain Balletarekin eta Iruñeko Udaleko Ingurumen Heziketarako Zerbitzuarekin elkarlanean Gipuzkoako, Nafarroako eta Pirinio Atlantikoetako ikasleen artean plastikoen itsasoetan sortzen dituzten arazoei buruz kontzientziatzeko eta sentibilizatzeko mugaz gaindiko ekimena. Proiektuak ingurume-hezkuntza eta gorputz espresioa uztartzen ditu metodologia eta baliabide pedagogiko berritzaileak erabiliz.

### 1.7.2.- Kanpainak

#### Gabonak Zuretzat

**Data:** Neguko oporraldian

**Edukiak:** Urtero, neguko oporraldian, haur eta gazteei zuzenduta jarduera ludikoz eta didaktikoz osatuta egitaraua antolatzen da, eskulanean ta proiektioen bidez, une atsegina partekatzeke, naturara eta jasangarritasunera modu dibertigarrian gerturatuz.

**Partehartzaileak:** 119 pax (95 emakumezkoak; 24 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra (umeak)

#### Uda Berdea

**Data:** Udako oporraldian

**Edukiak:** Aurtengo udan ere bi jarduera jarri dira eskuragarri interesa duten talde eta elkarteentzat, 'Munduko animaliekin jolasean' (3-6 urte) eta 'Ikusi-makusi, zer ikusi?' (6-12 urte). Jarduerak interesdunekin aldeztu aurretik adostutako egun eta orduetan izan dira.

**Partehartzaileak:** 456 pax (201 emakumezkoak; 255 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra (umeak)

#### Kontsumo kontzientea, herri partaidetzatik eraikitzen den kontsumoa

**Data:** Kontsumitzailearen Nazioarteko Egunaren inguruan

**Ikus xehetasunak Iraunkortasunaren Behatokiaren atalean.**

## 1.8.- BESTEAK

### 'Nature Change' erakusketara bisita

**Datak:** Urtarrilak 12, otsailak 16

**Edukiak:** Euskal Herrira etorri zenetik egindako lanak erakutsiko dituen Kimia Kamvari-ren erakusketa berrira erakusketako komisarioak, Nader Koochakik (euskaraz) eta Kimiak berak (gaztelaraz), gidatutako bisitak. Artea eta natura, materia eta berehalako esperientzia eta denbora ziklikoaren eta ekologiaren arteko erlazioei buruzko gogoeta da erakusketa hau.

**Partehartzailak:** 19 pax (10 emakumezkoak; 9 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Arropa truke-merkatua [JantziAgain]

**Datak:** Urtarrilak 27, otsailak 24, maiatzak 31, maiatzak 26

**Edukiak:** Erabiltzen ez dituzun arropak eta jantziak ekar itzazu, garbi eta egoera onean (gehienez 5). Truka itzazu ekarri dituzun arropak jantzi-puntuengatik. Erabili puntuak merkatuan arropa berriak eskuratzeko.

**Partehartzailak:** 87 pax (87 emakumezkoak; 0 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Ipuin-kontalari saioak

**Datak:** Otsailak 16 (Super Amara Riberas de Loiola), otsailak 23 (Super Amara Beraketa Irun), martxoak 16 (Super Amara Andoain), martxoak 23 (Super Amara Benta berri)

**Edukiak:** Urtero Cristina Enea Fundazioak antolatzen duen ingurumen ipuin lehiaketa aitzaki hartuta, azken edizioan aurkeztutako lan onenekin ipuin-kontalari saioak antolatu dira. 2018/2019 ikasturtean jasotako lanek "Biodibertsitatea" gaiaren inguruan aritu dira. Saio honetan, krokodilo, kanguro edo pinguien azalean jarriko gara, beren ohitura eta bitxikeriak gertutik ezagutzeko eta munduko txoko desberdinetako animalien inguruko istorio harrigarriak entzuteko.

**Partehartzailak:** 42 pax (30 emakumezkoak; 12 gizonezkoak).

**Lekua:** Superamara supermerkatuak

**Sektorea:** Publiko orokorra (umeak)

### 'Pictio. Pintutaren konpainian' erakusketara bisita

**Datak:** Apirilak 4, apirilak 11

**Edukiak:** Erakusketa honetan bildutako argazkiek, ikusteko modu bat erakutsi nahi dute, natura-argazkigintzaren bitartez begiratzeko modu bat, zeinean kamerako botoiari eragiten dion pertsonak prozesu fotografikoaren emaitza ikusarazten du non historiako korrante piktoriko desberdinen eraginak nagusitzen diren estiloa jasotzen den. Bisita gidatu honetako partehartzaileek gizakiaren jatorrietatik natura inspirazio-iturria izan dela hobeto ulertuta irtengo dira.

**Partehartzailak:** 13 pax (10 emakumezkoak; 3 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Industriaren herri-kirolak [HidroLogikak]

**Datak:** Apirilak 5, maiatzak 31

**Edukiak:** HidroLogikak2019ko proiektuaren barruan, Kulkik industriari loturiko hainbat jolas herriko proposatzen dizkigu. Jolasekin irudimena erabiliko dugu,

baita parte hartu eta ongi pasa ere festa giroan! Utz dezagun marea igotzen eta jolasez blai busti gaitzala!

**Partehartzailak:** 51 pax (35 emakumezkoak; 16 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### 'Zooteka' erakusketara bisita

**Datak:** Uztailak 18, uztailak 19, uztailak 21

**Edukiak:** Miquel Apariciren eskulturak erabiltzen ez diren antzinako objektuen assemblageak dira, metalezkoak eta zurezkoak. Artistak objektuak era sortzailean eta irudimenez erabiltzen ditu era guztietako animaliei bizitza emanaz beti bere jatorrizko egitura errespetatuz. Artistarekin batera bisita gidatu bat egingo dugu erakusketan eta bere eskutik ezagutuko dugu animalia hauek duten magia.

**Partehartzailak:** 39 pax (30 emakumezkoak; 9 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Lauburu Sax Quartet [HidroLogikak]

**Datak:** Abuztuak 1

**Edukiak:** Lauburu Sax Quartet saxofoi laukote gaztea Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian, Musikenen, jaio zen Miguel Ángel Lorenteren zuzendaritzapean. Lauburu kultura zeltaren ikur bat da. Musikariek lau saxofoi-jotzaileei ikurrak eskaintzen dien batasuna bezala interpretatzen dute, nahiz eta hainbat nazionalitatetakoak izan. Errendimendu profesionala duen taldea da, eta, gainera, egungo musika-panoraman asko eman beharrekoa da. Kontzertu anitza eskainiko du, XIX. eta XX. Mendeetako herri klasikoen obrekin, besteak beste, Gabriel Pierné, George Gershwin, Astor Piazzolla, Gyorgy Ligeti edo Marc Mellits. Antolatzaileak: Cristina Enea Fundazioa eta Mmusika Hamabostaldia.

**Partehartzailak:** 66 pax (33 emakumezkoak; 33 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Klima-aldaketaren aurkako Astea Garbera Merkatal Gunean

**Datak:** Irailak 7 - 15

**Edukiak:** Klima2050 Ekintza Plana Klima-Aldaketaren erronkarako Donostiako hiriaren erantzuna da. Testuinguru honetan kokatzen da *Klima Aldaketa Aldatuz* erakusketa, 15 panelez osatutako erakusgarri didaktiko hau, Klima-Aldaketaren jatorria eta bere ondoriak ulertzen laguntzen du, baita hiriarri nola eragingo dion eta zeintzuk diren Donostia hari aurre egiteko burutzen ari den ekintzak. Gainera, era osagarrian bi jarduera didaktiko programatu dira, Klima-Aldaketaren inguruko ezaguerak transmititzeko. *Klima Aldaketa joko beroa?* Publiko orokorrari zuzendutako tailer didaktikoa da, era atseginean Klima-Aldaketak planetako leku desberdinetan bizi diren pertsonengan erogiten ari den efektuak aztertzen ditu, herritarrek burutu ditzaketen ekintzak beren efektua eta ekartzen duen ahalegin pertsonala. Beste jarduera *Zuriñeren abentura* haurren ipuinkontalari saioa da, Tsunami Doktoareak gutun bat jasotzen du, bere lagun Zuriñe hartz zuriak laguntza eskatzen dio bere mundua desagertzen ari delako.

**Partehartzailak:** 217 pax (190 emakumezkoak; 27 gizonezkoak).

**Lekua:** Garbera merkatal zentroa

**Sektorea:** Publiko orokorra



### **Cristina Enea 3, 2, 1... ekin! Antzerki emanaldiak**

**Data:** Irailak 20 – urriak 11

**Edukiak:** "Cristina Enea parkean gertatutako istoriei buruzko pelikula bat filmatzeko 35 figurante behar dira". Bere 10. urteurrena ospatzeko Cristina Enea Fundazioak, Aizpea Goenaga eta Borobil Teatroaren eskutik, aurkezten duen airepeko antzezlan horrelaxe hasten da. Parkean bertan kokatzen den filma baten errodaian, toki paregabe honetatik pasa diren hain berezia diren pertsona batzuk ezagutzeko aukera izango dugu.

**Partehartzailak:** 60 pax (30 emakumezkoak; 30 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

# ULIA INTERPRETAZIO ZENTROA



## 2.- ULIA INTERPRETATIO ZENTROA

Kontrakoa adierazten ez bada, jarduera guztiak Ulia Interpretazio Zentroan, edo bere inguruan, ospatu dira. Jarduera guztiak propioak dira eta ez merkataritzakoak, eta Funadazioko helburuak betetzeko diseinatuta daude. Partehartzaile guztiak pertsona fisikoak izan dira.

### 2.1.- ERAKUSKETAK

#### Txoriak 3.0. Jantoki belaunaldi berria

**Data:** Urtarrilak 14 – martxoak 19

**Edukiak:** 2016. urtean Kursaal Greenen, Aranzadiko Ornitologia departamentuaren eta Cristina Enea Fundazioaren artean Txoriak egitasmoa jarri genuen martxan. Bertan, materialen berrerabilera bultzatzearekin batera, gaztetxoenen artean hegaztiak ezagutza eta biodibertsitatea handitzea bultzatzen da, lehenago zigarroak saltzeko makina zena habia-kutxa bihurtu eta ikastetxeen artean banatuz. Bigarren urtez Tecnum Ingeniaritza Eskolaren elkarlana izan dugu. Txoriak proiektuaren irizpideetan oinarriturik, aurten hegaztientzako jantoki berritzaileak diseinatu dituzte. Erakusketa honetan diseinu hauek ezagutu ahal izango ditugu merkatuan aurki ditzakegun hainbat adibiderekkin batera.

**Bisitariak:** 310 pax (250 emakumezkoak; 260 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

#### Aurkezpenak, lorategiko txoriak ezagutzen

**Data:** Apirilak 1 – ekainak 23

**Edukiak:** Ez dugu zertan urrutira bidaiatu behar naturaz gozatzeko. Gure inguruan badira gune berde ugari eta atentzioa ipiniz gero harrigarria da bertan aurki dezakegun biodibertsitatea. Aurreko erakusketan gure lorategietara txoriak erakartzeko jantoki desberdinak ezagutu genituen. Hauen inguruan behatoki diskretu bat aukeratuz gero asko dira behatu ahalko dituzuen hegazti espezieak. Bitartean, argazki erakusketa honetan, gure jantokietara gerturatu daitezkeen txoriak aurkeztu nahi dizkizuegu.

**Bisitariak:** 841 pax (269 emakumezkoak; 572 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

#### Biodibertsitatea Natura 2000 sarean

**Data:** Uztailak 1 – irailak 1

**Edukiak:** Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, Iñobe sozietate publikoarekin elkarlanean, *Euskadiren biodibertsitatea Natura 2000 Sarean* argazki-lehiaketa antolatatu zuen bigarren aldiz iaz, Euskal Autonomia Erkidegoko natura-ondarea ezagutzera emateko helburuarekin. Lehiaketa honetako 12 argazki finalistak ikusgai edukiko ditugu uda honetan Ulia Interpretazio Zentroan eta bertara gerturatzen direnek Natura 2000 Sareari buruzko informazioa ere izango dute eskuragarri.

**Bisitariak:** 1.181 pax (895 emakumezkoak; 286 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

#### Natura arte bihurtuz

**Data:** Urriak 19 – abenduak 21

**Edukiak:** Natura betidanik izan da inspirazio iturri eta artelan askoren bitartez mendiak, basoak, hondartzak edo beste edozein eremuk eragindako sentipenak gureganatzen saiatu dira. Naturan murgildu eta natura bera

lehengai bezala erabili, hausnarketa artistikoa behin-behineko artelan bihurtzen da higadura bera artearen prozesuan barneratzen delarik. Erakusketa honetan Idea Bat elkartearekin buruturiko ariketa ikusgai izango dugu, naturan buruturiko artelan iraungikor berrientzat inspirazio iturri bezala.

**Bisitariak:** 325 pax (250 emakumezkoak; 75 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

## 2.2.- IKASTARO ETA TAILERRAK

### Uliako putzuko bizilagunak

**Data:** Otsailak 3

**Edukiak:** Putzu berriak ditugu Ulian baina nor bizi da bertan? Lurrean, uretan, airean... oso

modu desberdinetara bizi diren animaliak elkartzen dira bertan eta guztiak animalia bitxiak! Horregatik tailer honen bitartez parte hartzaileek animalia hauen bizimodua hobeto ezagutu eta beren bizi baldintzak hobetzen lagunduko dute.

**Partehartzaileak:** 20 pax (15 emakumezkoak; 10 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Oporrak naturaz blai!

**Data:** Apirilak 18 (*Altxorraren bila*), apirilak 19 (*Eskuz egina*), apirilak 20 (*Baina hor al zegoen?*), apirilak 21 (*Ezagutu parkea!*), apirilak 22 (*Udaberrian murgilduta!*)

**Edukiak:** Uliak aukera ugari ematen digu oporrak naturarekin harremanetan pasa eta txoko berriak aurkitzeko. Hori dela eta, Uli Interpretazio Zentroan hainbat ekintza antolatu ditugu, familia giroan inguru honi buruzko gauza berriak ezagutu eta ondo pasatzeko. Animatu parte hartzera!

**Partehartzaileak:** 66 pax (42 emakumezkoak; 24 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra (umeak)

### Gatz, Titiritorto basatia (txotxongilo ikuskizuna)

**Data:** Ekainak 8

**Edukiak:** Titiritortoak Uliako basoan bizi diren izaki magikoak dira. Zuhaitzen barruan bizi dira. Okilen antzera, zuhaitzen enborren barrenean eraikitzen dituzte euren habiak. Bertan babesten dira neguko hotzetik, gaueko iluntasunetik, eta bertan dira ere gutaz ezkututzen. Gugandik oso ezberdinak dira titiritortoak. Begi bakarra dute, azal berde-berdea eta buruan ez dute ilerik, belarra baizik. Isats luze bat dute adarretatik zintzilikatzen. Gatz Basatia zazpi urteko titiritorto bat da. Zatozte bizkor, zuek ezagutzeko irrikaz dago eta...

**Partehartzaileak:** 50 pax (30 emakumezkoak; 20 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra (umeak)

### Uliatik galdu gabe. Orientazio jolasa

**Data:** Ekainak 15

**Edukiak:** Uli mendian orientazio zirkuitu bat prestatzen ari gara eta honi ahalik eta etekin handiena ateratzeko Gipuzkoako Orientazio Taldeko (GOT) kideen laguntza izango dugu hasieran. Mapa interpretatzen ikasteko eta jokoaren nondik norakoak azaltzeko saio baten ondoren, Ulian barrera egongo diren balizak bilatu, eta mendiko txoko ezberdinak ezagutzeko aukera izango dugu. Haur zein helduei zuzenduriko ekintza da eta bakoitzak bere mailako ibilbidea egiteko aukera izango du (8 urtetik beherakoek heldu baten laguntza beharko dute). Animatzen al zarete mapa jarraituz Uliako altxor ezkutatuak ezagutzera?

**Partehartzaileak:** 28 pax (15 emakumezkoak; 13 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Natura zaborrik gabe [LIBERA]

**Data:** Ekainak 16

**Edukiak:** Denok dugu gustuko naturaz gozatzea baina tamalez honek ondorio txarrak eduki ditzake. Ohikoa izaten da jendea dabilen lekuetan zaborra pilatzea eta horrek eragin ezkorrak ditu tokiko landaredia eta animalienengan. SEO/ BirdLife eta Ecoembesek bultzatutako LIBERA proiektuaren ekimen honen bitartez, ingurugiroa garbi mantentzearen garrantziaz ohartuko gara, Uliako egoera hobetu, eta tailer desberdinen bitartez bertako bitxikeriak ezagutzearekin batera.

**Partehartzaileak:** 15 pax (8 emakumezkoak; 7 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Uliako orientazio zirkuitua

**Data:** Ekainak 29 - irailak 21

**Edukiak:** Estreinaldi berria Ulian! Uda honetan ekintza berri bat jarriko dugu martxan Ulian. Gipuzkoako Orientazio Taldearekin (GOT) batera maila desberdinetako hiru orientazio zirkuitu diseinatu ditugu, maila guztietako erabiltzaileentzat. Uliako mendiko mendebaldeko azaltzen duen mapa zehatz baten bitartez, hiru ibilbide proposamen egiten dira, gure orientazio gaitasuna frogatzearekin batera gune honetako txoko ezkutatuak ezagutzeko. Hau ospatzeko, uda honetan zehar zirkuitu hauetako bat zuzen osatzen dutenen artean, aire librean eta naturarekin harremanetan kirol honetaz gozatzeko baliagarri izango diren hainbat sari zozkatuko dugu. Anima zaitez esperientzia berri hau probatzera!

**Partehartzaileak:** 103 pax (81 emakumezkoak; 22 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Ipuin-kontalaria: *Txoriak kontu kantari* [LIBERA]

**Data:** Urriak 5

**Edukiak:** Kamishibai, Japonian sortutako teknika bat da. Bertan, ipuinen kontaketa marrazki desberdinez laguntzen da istorioa ulergarriagoa eginez. Oraingoan, ipuinak hegaztien mundura hurbilduko gaitu eta bitxikeria desberdinak ezagutuko ditugu: zer jaten dute, nola bizi dira, beraien habiak... Gainera ipuin kontaketa ondorengo tailerrean irudimena piztu eta ipuinaren amaiera asmatzeko tresnak eskura edukiko ditugu gure ekintzek hegaztiengan izan ditzaketen ondorioez hausnartu eta gure irtenbideak proposatuz. Anima zaitez hegaztien kontuei amaiera polita ematera!

**Partehartzaileak:** 6 pax (5 emakumezkoak; 1 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Arte efimero en la naturaleza [LIBERA]

**Data:** Urriak 12

**Edukiak:** Ibilbide erraz baten bitartez, Uliako gaina eta bertako landaredia ezagutzeko aukera izango dugu. Paseoan zehar naturako elementu desberdinak jasoko ditugu, esate baterako hostoak, harriak edo lurra. Elementu hauek gure artelanak egiteko erabiliko ditugunak izango dira. Modu honetara, naturarekin erlazionatzeko modu berri bat ezagutuko dugu, artearen bidez. Lan hauek burutzerakoan bereziki kontuan hartuko dugu inguruan izan dezaketen eragina eta honek ingurumen arazoan inguruko hausnarketan sakontzera eramango gaitu. Parte-hartzaileek egindako artelanak, bertan geratzeko dira, behin behinekoak, txikiak eta naturan inongo

kalterik eragiten ez dutenak izango baitira. Ibilbidean zehar, eta LIBERA proiektuarekin bat eginez, bidean aurkitzen ditugun hondakinak ere jasoko ditugu. Modu honetan lehen zaborra zegoen tokian aire libreko artelan iragankorrak utziko ditugu.

**Partehartzaileak:** 17 pax (10 emakumezkoak; 7 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### **Orientazioa: kirol berri bat naturan**

**Data:** Azaroak 16

**Edukiak:** Orientazioa naturan burutzeko kirola da eta modu ezin hobean bateratzen ditu esfortzu fisiko eta mentala. Momentu oro non gauden eta nondik nora joan behar dugun jakiteko gai izango gara, mapa batean proposatzen den zirkuitua jarraituz leku berriak ezagutuko ditugularik. Gipuzkoako Orientazio Taldeak (GOT) emango duen ikastaro honetan, kirol honekin gozatzeko beharrezkoak diren ezagutzak jasoko ditugu saio teoriko batean eta ondoren ikasitakoa frogatzeko aukera izango dugu Uliako txoko ezkutua erakutsiko dizkigun zirkuitu baten bitartez.

**Partehartzaileak:** 20 pax (12 emakumezkoak; 8 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### **Baso-bainua Ulian**

**Data:** Urriak 5

**Edukiak:** Hirietan gero eta murgilduago bizi gara. Gure bizimoduaren erritmo azkarrek naturarengandik gero eta gehiago urruntzen gaituzte, horrek gure osasunarengan ondorioak dituelarik: estresa, antsietatea eta baita sistema kardiobaskularrean alterazioak ere. IBB-ko (Instituto de Baños de Bosque) gida baten eskutik, metodologia japoniar hau frogatzera animatu nahi zaituztegu. Teknika honen bitartez, naturarekin harremanak eskaintzen dizkigun onurak berreskuratuko ditugu. Uliako basoetatik paseoa, ekintza gidatuekin uztartuz, zentzumenak ireki eta gorputza indarberrituko digun esperientzia bat bizitzeko aukera izango dugu.

**Partehartzaileak:** 20 pax (12 emakumezkoak; 8 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

## 2.3.- IRTEERAK

### Uliako putzuen zaindariak [LIBERA]

**Data:** Otsailak 2

**Edukiak:** Animalia talde mehatxatuenen artean daude anfibioak, burrunzi eta sorgin orratzak, eta beren ugalketa ahalbidetzeko putzu sare egonkor bat sortzen dabilta Ulian. Tamalez giza jarduera eta portaera guztiak ez dira naturaren defentsaren aldeko, zaborra Uliako zenbait gunetan ugaritu egin da, eta tamalez eremu horietariko bat putzuak izan dira. Libera proiektuaren barne eta Aranzadiko kideen gidaritzapean, anfibio, burrunzi eta sorgin orratzei buruzko bitxikeriak ezagutu eta Herri Ametsa ikastetxe inguruan eraiki berri den putzuaren mantenu eta garbiketa lanak burutuko dira, denon laguntzaz bizidun urtarren egoera hobetuz. Jarri zure aletxo eta animatu zaitetz parte hartzera!

**Partehartzaileak:** 24 pax (12 emakumezkoak; 12 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Uliako itsas-labarren ondarea

**Data:** Martxoak 23, maiatzak 4, irailak 7, urriak 19

**Edukiak:** Uliako ekosistema garrantzitsuenetakoak dira itsas-labarrak eta jende asko gerturatu da bertara kontrastez beteriko paisaiatz gozatzera. Baina ikuspegi hau hankamotz geratzen da norabide bakar batean baitoa gure begirada, lurretik itsasora. Horregatik oraingoan buelta eman nahi izan diogu eta Mater Museoarekin elkarlanean, arrantza-ontzi tradizional batean itsasoratuko gara Uli eta Jaizkibel mendien itsaslabarrak eta bertan aurki daitekeen flora eta fauna ezagutzera.

**Partehartzaileak:** 34 pax (12 emakumezkoak; 22 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Uliako hegazti arruntak [LIBERA]

**Data:** Maiatzak 18

**Edukiak:** Gauza asko ditugu egiteko eta ikasteko Ulian. SEO/BirdLifeko kideekin batera Uliako hegaztiak ezagutzeko antolatutako dugun irteera honetan ere gure alea jarri nahi dugu eta naturaz gozatzeko gain honen egoera hobetu eta ezagutzan laguntzeko. Horrela, SEO/BirdLifek urtero burutzen duen SACRE programan gure datuekin nola parte hartu ikasiko dugu eta LIBERA programaren barruan, gure mendi askotan bezala Ulian ere ugaritzen ari den espezie inbaditzaile arriskutsuari aurre egingo diogu... zaborrari! Anima zaitetz eta etorri gurekin batera naturaz gozatu, gauza berriak ikasi eta natura zaintzera.

**Partehartzaileak:** 11 pax (10 emakumezkoak; 1 gizonezkoak).

**Sektorea:** Publiko orokorra

### Baso-bainua eta tailerra Ulian

**Data:** Ekainak 22 - 23

**Edukiak:** Hirietan gero eta murgilduago bizi gara. Gure bizimoduaren erritmo azkarrek naturarengandik gero eta gehiago urruntzen gaituzte, horrek gure osasunarengan ondorioak dituelarik: estresa, antsietatea eta baita sistema kardiobaskularrean alterazioak ere. Baso bainuetan aditua den Álex Gesse gida eta gidaren formatzailearen eskutik, metodologia japoniar hau frogatzera animatu nahi zaituztegu. Teknika honen bitartez, naturarekin harremanak eskaintzen dizkigun onurak berreskuratuko ditugu. Uliako basoetatik paseoa,



